

1. AURKEZPENA

1. AURKEZPENA

Dokumentu honek azken urtean garaturiko Donostiako Plan Estrategikoa abian jarri aurretiko faseko emaitzak jasotzen ditu.

Donostiak, hiri gisa, hurrengo hilabeteetan etorkizunari buruzko gogoeta estrategikorako prozesua irekitzea planteatu du, 2010 urteko erreferentziazko denbora-esparruan kokatua (exekuzioa, abian jartzea eta berrikuspena eta eguneratzea) eta -hirian zentratu eta parte-hartze aktiboko prozesu zabaletik abiatuz- hiri-eredua definitzeko eta eredu hori gauzatuko luketen proiektuak zehazteko helburuekin. Era berean, kanporako proiektioa eta dimentsio espaziala bilatuko dira, baita hiriarentzat etorkizun eta etorkizun iturri izan daitezkeen tresna partekatuaren definizioa eta martxan jartzea ere.

Aurre-gogoeta estrategikoan zentratu aurretiko fase honetan nahiz Plan Estrategikoa egiteko oinarriko eta erreferentziazko elementuen egituraketan eta definizioan, 70 pertsonak baino gehiagok parte hartu dute, aktore klabeak, adituak eta instituzioetako ordezkariak batuz; beren ezagutza eta informaziorako aukerak direla-eta, hainbat gai eta erreferentziazko elementu klabeak ekarri dituzte, gogoeta eta hiriaren etorkizunari buruzko eztabaida horietan oinarrituta egituratzeko.

Aipatu dokumentuak honako atal nagusiak ditu:

- Sarrera gisa, Europako hiri nagusietakoarekin erkatuz (guztira, 58), Donostiako bizi-kalitatearen analisia aurkezten da, hirietako bizi-kalitateari atxikitako adierazle desberdinen erkaketatik egina (demografia, osasuna, etxerako ekipamenduak, jarduera ekonomiko, kultura eta ohitura sozialak).
- Hasiera batean hiriarentzat aipagarrienak izan daitezkeen gogoeta-eremu eta erronka estrategikoen analisia. Analisi hori eta berari atxikitako elementu klabeen identifikazioa dira dokumentu honen muina.

Analisiaren objektu diren erronka estrategikoak horretarako sortutako gogoeta estrategikorako gune eta mintegietan aztertu dira, eta dokumentu honetan horietan landu diren hainbat atal biltzen dira. Aztertutako zazpi erronkak honakoak izan dira:

- Ikerketa eta Berrikuntza
- Informazio eta telekomunikazio teknologia berriak

- Ikus-entzunezko jarduera eta zerbitzuak
- Kultura-Industria: ekoizpen artistikoa
- Kohesio soziala eta parte-hartzea
- Administrazio Publikoaren modernizazioa
- Higikortasuna eta Lurraldea

Atal hau ordezkari instituzional nabarmenei, agente klabeei eta adituei eginiko elkarrizketetatik ateratako ideia nagusien erreferentziarekin osatzen da. Era berean, euskararen inguruko planteamendu estrategikoari buruzko sail berezia gehitu zaio.

- Azkenik, beste bi atal ere jaso dira: Plan Estrategikoa garatzeko eta bideratzeko antolaketa proposamenari buruzkoa eta aurre-fasean –dokumentu honetan biltzen dira, hain zuzen, horren emaitzak– parte hartu duten pertsonen aipamena.